


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Poesia, indarra eta dotoretasuna

Izen berezi horren atzean poliki-poliki Euskal Herriko eszena rockeroan dagokion lekua aurkitu duen Zornotzako laukotea dago. Bigarren lan honetan Usoaren ahots eder eta erre-gistro aberatsek goxotasun eta izaera berezia ematen diete Eskandinaviako punk-rocketik eta Kuraiaeren *riffetatik* hurbil dauden erritmo eta gitarra gogorrei. Turbonegrotan indarra, Sewergroovesen dotoretasuna eta Snobsen melodia ramonianoa nagusi diren arren, badira pieza hardrockeroagoak (*Egarriz gosa*), intentsitate handiko pop-rocka (*Ilundu du gauak*) edo punketik hurbilago dagoen *Vietcom musu bat baby*, Guillermo Sapok idatzi eta Fernando Sapok abestua. Hitzak, berriz, metaforaz josiak daude, eta poesia hutsa dira. Txalogarria, baita ere, hastapenean diskoetxea sortu zutela, eta gero eta lan gehiago kaleratzen dituztela.

Geisha
Nuuk At

IDEIAK BULTZATUZ

Iraupena: 31'13"
8,96 euro

USOA - NUUK AT

«Abesti bati eskatzen diot gozoa,
garratza, gazia eta mikatza izatea»

“Geisha”. Bizitza honetan guztiok prostituitu beharra daukagu?

Beti dugu gurea den zerbait saltzeko aukera edo beharra, beti ere bakoitza norberaren jabe denean eta inork inposatu-tako zerbait egiten ez dugunean. Eta beti gure barruan “vietcom” bat dago, saiatzuz gero aska dai-tekeena?

Bai, zaila eta gogorra izan arren denok dugu “vietcom” hori gure barnetik askatzeko nahia, neurosira heldu nahi ez badugu behintzat.

Hitzak oso poetikoak dira eta esaldi ederrak dituzte...

Oraingoan astia izan dugu hitzak pentsatu, egin, moldatu, berregin eta osatzeko. Behatu eta sentitzen dugun izaki sinple eta moldagarriak gara, musikari esker hau guztia barrutik ateratzeko aukera dugunak.

Bigarren lan honetan igartzen da punk-rocka eta rock gitarreroa oso gustuko dituzuela...

Ba egia esan gure bizitzako fase ezberdinetan musika asko eta era askotakoa entzun izan dugu, baina tartean beti egon da rock gitarrero hori gure belarriak zulatzen eta hezten.



Zer irudikatzen dute aipatzen dituzuen “belek”? Dualitatea?

Alde batetik dualitatea iru-dikatzen dute, eta beste alde batetik hipokresia, gorrotoa, mina eta etorkizunerako espe-rantza.

Ideiak Bultzatuz ekimenetik tiraka, beste talde batzuen lanak ere kaleratzen dihardu-zue... Zelan doa?

Astiro-astiro gure sustraiak finkatzen ari gara, lan handia eta nekagarria izan arren pozik

gaude orain arte lortutako emaitzarekin. Exum, AD+Flow eta No Humanoren lanak argitaratu ditugu, eta ateak zabalik dituen proiektu bat denez, edonork izango du bertan sartzeko aukera.

Zuk idatzitako hitzek sentimendu handia dute. Usoa, zelakoak iruditzen zaizkizu gaur egungo taldeen hitzak? Oso azalekoak?

Denetarik dago, inolako metaforarik gabe zuzenean mezua botatzen duten hitzak edota pedanteriaz beteta-ko abesti astunak.

Eta zuk zer eskatzen diozu abesti bati?

Gozoa, garratza, gazia eta mikatza izatea.